

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Altsasuren papera indartzea haren eragin- eremuko gunea bezala; horixe da herriaren etorkizuneko Udal Plan Orokorreko helburu nagusietariko bat

*Nafarroako Gobernuak planaren %80a finantzatuko du; horretarako, Elizalde kontseilariak eta herriko alkateak hitzarmena sinatu dute*

Osteguna, 2018.eko irailak 6

Altsasuren papera indartzea haren eragin-eremuko gunea bezala; horixe da etorkizuneko Udal Plan Orokorreko (UPO) helburu nagusietariko bat, eta, horretarako, Nafarroako Gobernuak aurrekontuaren % 80a jarriko du gutxi gorabehera.

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilari

Isabel Elizalde eta Altsasuko alkate Javier Ollok sinatutako hitzarmenean jasotzen dira horren inguruko xehetasunak.



Elizalde kontseilaria eta Olló alkatea, sinatzeko une batean.

Idazteko lanen aurrekontua 245.000 eurokoa da, eta foru Exekutiboak 196.000 euro jarriko ditu.

### Udalerrientzat interesgarriak diren helburuak

Eragin-eremuko gunea bezala herriak duen papera indartzeaz gain, UPOko helburuen artean honako hauek nabarmendu behar dira: tokiko horniduren defizita planifikatzea (espazio libreak, aparkalekuak, ekipamenduak) alde zaharrean; herri-gunearen hazkundearen kudeaketa-eredu iraunkorra eta errealista indartzea; eta egungo Udal Plana egiterakoan orain arte ikusitako eragozpenak aztertzea, horiek zuzentzearen.

Horrez gain, hiri-ondarearen katalogo berria egin nahi da, toki-mailan interes kulturala duten landako lekuen eta eraikinen inbentarioarekin batera; era berean, asmoa da mugikortasunaren eta trafikoaren inguruko arazoak konpontzea.

### Foruarentzat interesgarriak diren helburuak

Foru intereseko helburuei dagokienean, bizitegi-lurzoruaren, horniduraren eta jarduera ekonomikoaren gaineko premiak konpondu nahi dira, biztanleriarentzat sistema orokor egokiak planifikatuaz. Ildo horretan, proposaturiko hirigintza-eredua lehendik dauden eta aurreikusten diren

azpiegitura handiekin koordinatuko da, eta herriko bide-sarearekiko konexioa aztertuko da.

Orobat, garapen iraunkorra sustatuko da hazkunde konpaktuari dagokionean, eta energia-eraginkortasuna hobetzeko jarduerak, mugikortasun iraunkorra, irisgarritasuna eta paisaia zaintzea.

Halaber, Nafarroa Atlantikorako Lurralde Antolamendu Planean (POT-2) ezarritako aurreikuspenak, jarraibideak eta zehaztapenak sartuko dira ondare naturaleko eta kultureko ardatz estrategikoetan, hiri-sisteman eta azpiegiturretan. Ildo horretan, UPOn babes bereziko eremuak identifikatuko dira; hala nola, lurralde-mailako konektibitateko espazioak (Altzania mendilerroa eta Urbasa eta Andia Mendiak) eta Arakil eta Altzania ibaietako ibai-sarea, besteak beste.

Behin hitzarmena sinatuta, Segimendu Batzordea eratuko da, eta toki-erakundeko kideek eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuko ordezkariak osatuko dute. Batzordeak Plana idazteko eta izapidetzeko prozesuaren agenda ezarri eta kontrolatuko dute, alderdi metodologikoak, dokumentalak eta parte-hartze sozialekoak zuzentzearekin eta gainbegiratzearekin batera.